

# musikaren urtekaria 2016

euskal herriko musika bulego elkartea

**2016 #1**

02 **Editoriala.** -03 **Aurkibidea.** -04 **2016 para EHMBE.** -06 **Euskadiko Soinuak.** -07 **Musika Bulegoa, Ahalmen handiko tresna.** 08 **Haur eta nerabeak. Nola izan erakargarri.** -10 **Estudio: Música y medios.** -12 **Basque Music estrategia.** -13 **Etxepare Institutua: Aizpea Goenaga.** -14 **Kultura Live: Juan Uriarte.**-16 **Zuzenekoak. Mikro/Makro** -18 **Musikagileak: Jóvenes compositores.** 19 **Musikagileak: Ramon Lazkano.** -20 **Musikari: Topaleku eta bozgorailu.** -21 **Propiedad intelectual: Ainara LeGardon.** 22 **MIE: Cobertura a empresas.** 23 **Musikaren egiturak, Musikaren azpiak.** -24 **Musika Bulego Sariak 2016.** -26 **Estudio: Formación.**

musika bulegoa
euskal herriko musika bulego elkartea

Esku artean duzun aldizkaria Musika Bulegoak xede bikoitzarekin eta euskal musika eszenako sektore ezberdinei zuzenduta abiarazi duen egitasmo berria da. Alde batetik, gure herriko musika jarduera islatu nahi du ahalik eta zentzu zabal eta anitzenean; eta bestetik, sektorearen mesederako komunikazio, eztabaida eta autoezagutza tresna berria izan nahi du.

Anbizio handiko helburuak ditu, zinez, bere bidea 2016ko Durangoko Azokan hasiko duen argitalpen honek. Abendu hasierakoa plataforma ezinhobea baita gure musikaren unibertso mugagabera herabe hurbiltzeko; sortzaileengana, hamarnaka musikarirengana, industriara, bere espazioetara... makina bat galaxiak eta astrok elkar eragiten baitute gure herri eta hirietan, entzungelatan, musika eskoletan, entsegu lokaletan, grabaketa estudioetan, jaialdietan, kontzertu aretoetan, etab. Zorionez, unibertsoa handiegia da eta argitalpen honek ezin du osorik besarkatu. Baina horrek ez gaitu kezkatzen, lerro editorial ezberdineko beste hainbat argitalpen arduratzen baitira Euskal Herriko musika jarduera aberatsaren berri zabaltzeaz.

Zentzu horretan, *Musikaren Urtekaria* 2016 ikuspuntu editorial berria ekartzera dator, interes handikoa egun Musika Bulegoaren baitako espazio kolaboratibo eta intersektorialean elkarkidetutako hamarnaka musikari eta enpresentzat, eta baita euskal musikaren panorama osatzen duten gainontzeko eragileentzat ere.

Aurreneko zenbaki honetako edukiak zeuen interesekoak izatea espero dugu, nahiz eta jakin badakigun, noski, zenbaki gehiago beharko ditugula euskal musikaren eszenako belarri ezberdinetara iristeko moduko tonu egokia aurkitu eta hasieran deskribatutako xedeak betetzeko, harik eta argitalpen hau sektorearentzat ez ezik gure herriko sare sozial eta kulturalarentzat ere erreferente bilakatu arte.

**Euskal Herriko Musika Bulego Elkarteko Zuzendaritza Batzordea**

La revista que tienes en las manos es una nueva iniciativa de Musika Bulegoa destinada a los diferentes sectores de la escena musical vasca con el doble objetivo de ser un reflejo de la actividad musical de nuestro país en su concepto más amplio y plural posible, e instaurar una nueva herramienta de comunicación, debate y autoconocimiento al servicio del sector.

Dos objetivos muy ambiciosos para una nueva publicación que despega en la Feria de Durango de 2016, una inmejorable plataforma de lanzamiento para asomarse con timidez al infinito universo de nuestra música, de sus creadores, sus decenas de músicos, su industria, sus espacios... un sinfín de galaxias y astros que habitan en todas y cada una de nuestras ciudades y pueblos, auditorios, escuelas de música, locales de ensayo, estudios de grabación, festivales, salas de conciertos, etc. Un universo por suerte lo suficientemente enorme como para que esta publicación no pueda ni pretenda abarcarlo, algo que tampoco representa problema alguno ya que, también por suerte, son varias las publicaciones que desde diferentes líneas editoriales se ocupan de difundir la rica actividad musical de Euskal Herria.

En este sentido *Musikaren Urtekaria* 2016 llega para aportar información y reflexionar desde el espacio colaborativo e intersectorial que hoy supone Musika Bulegoa, sin duda un nuevo punto de vista editorial necesario y de gran interés tanto para las decenas de músicos y empresas que hoy están asociados/as en Musika Bulegoa, como para el conjunto de agentes que conforman el panorama musical vasco.

Esperamos que los contenidos de este primer número sean de vuestro interés, siendo conscientes de que por supuesto, harán falta todavía unos números más para que la publicación encuentre el tono adecuado para llegar a los diversos oídos de la escena musical vasca y cumplir con los objetivos que describíamos al principio, convirtiendo esta publicación en una referencia no sólo para el sector sino para todo el tejido cultural y social del país.

**Junta Directiva de Euskal Herriko Musika Bulego Elkartea**

**Argitalpena /Edición:** Euskal Herriko Musika Bulego Elkartea • **Koordinazioa / Coordinación:** Igone Mariezkurrena eta Iñigo Martínez (Entzun.com)
**Edizioa eta zuzenketak / Edición y correcciones:** Igone Mariezkurrena (Entzun.com) • **Argazkiak / Fotografías:** Askoren artean / Varios
**Diseinua eta maketazioa / Diseño y maquetación:** Ana García (Eragin.com)
**Lege gordailua / Depósito legal: NA-2230-2016**

# Aurkibidea



04/05
2016 para EHMBE


06
Euskadiko Soinuak


07
Musika Bulegoa,
Ahalmen handiko tresna


08/09
Haur eta nerabeak
Nola izan erakargarri


10/11
Estudio
Música y medios



12
Basque Music
estrategia



13
Etxepare Institutua
Aizpea Goenaga


14/15
Kultura Live
Juan Uriarte


16/17
Zuzenekoak
Mikro/Makro


18
Musikagileak
Jóvenes compositores


19
Musikagileak
Ramon Lazkano

20
Musikari
Topaleku eta bozgorailu


21
Propiedad intelectual
Ainara LeGardon

MUSIKA INDUSTRIAREN ELKARTEA
22
MIE
Cobertura a empresas


23
Musikaren egiturak
Musikaren azpiak



24/25
Musika Bulego
Sariak 2016


26
Estudio
Formación

# 2016 para EHMBE
## DE LA OFICINA A LA CALLE




Tras su nacimiento en noviembre de 2014 y un 2015 centrado principalmente en asentar la estructura y funcionamiento interno (aunque EHMBE Euskal Herriko Musika Bulego Elkartea comenzó ya el pasado año su andadura pública realizando algunas actividades y colaborando con otras dentro de la campaña 'Adi, Gure Musikari Adi!'), MB encaraba este año 2016 con el gran reto de llevar a la práctica los proyectos diseñados y enmarcados dentro de sus diferentes ejes de actividad (debate sectorial, formación, sensibilización, promoción y difusión exterior), a la vez que continuaba su plan de presentación en sociedad.

Iniciativas como la Bolsa de Proyectos, Musika Bulegoa Sariak, activación del plan de difusión exterior formando parte junto a Etxepare y Euskadiko Soinuak de la iniciativa Basque Music, o la edición de esta misma publicación, han sido los proyectos emprendidos este año. Son apuestas que están marcando ya la senda por donde MB va a dirigir su actividad en un futuro próximo y que, aún en fase de ejecución y evaluación, se configuran ya como acciones troncales dentro de la actividad de Musika Bulegoa. Acciones que, por supuesto, tendrán que redefinirse y mejorarse en consonancia con el constante debate sectorial que MB promueve y defiende.











Es por ello que consideramos que 2016 ha sido un año clave en el devenir de MB. Ha saltado de la oficina a la calle, comenzando a situarse y a jugar su papel en el panorama musical vasco, un abandono del banquillo no exento de problemas, limitaciones y dudas siempre inherentes a una asociación de carácter y vocación pública como MB, y que se han ido resolviendo con mayor o menor acierto y siempre mirando hacia un futuro optimista. No en vano, la potencialidad de Musika Bulegoa como herramienta vertebradora del sector esta fuera de toda duda.

Esta actividad pública ha supuesto además el fortalecimiento de la relación de MB con los agentes del sector y ha generado un necesario feedback respecto al conocimiento que se tiene de MB y de sus actividades, a quién se llega y a quién no, qué se entiende y qué no... lo cuál, sin duda, es un gran aporte: ayuda a los que hoy trabajamos en Musika Bulegoa a ubicar mejor el proyecto de la Oficina de la Música de Euskal Herria dentro del amplio espectro de agentes que hoy conforman la escena musical vasca.

# BOLSA DE PROYECTOS 2016

Tras la experiencia acumulada años anteriores con las campañas 'Adi, Gure Musikari Adi!', Musika Bulegoa rediseñaba y ponía en marcha a mediados de año una nueva fórmula para continuar fomentando actividades centradas en tres ejes fundamentales: la formación, sensibilización y promoción de nuestra actividad musical; un nuevo modelo que hemos denominado Bolsa de Proyectos.

A través de esta Bolsa de Proyectos, Musika Bulegoa pretende, por un lado, contar con un catálogo permanente de actividades cuyo desarrollo pueda ir contratando íntegra o parcialmente con los agentes proponentes, siempre en función de los objetivos, planes temporales y recursos de la Asociación. Y, por otro, contribuir a la generación de nuevas iniciativas enmarcadas en los tres ejes de actividad citados.

**Estos son los proyectos que han sido contratados durante este año 2016:**

| organizador | actividad | |
|---|---|---|
| **ASOCIACIÓN MUGAKO** | Técnicas de síntesis en la creación y diseño de percusión electrónica | EJECUTADO EL 21-22 DE OCTUBRE EN MUGAKO FESTIVAL GASTEIZ |
| **SONORA ESTUDIOS** | La Música y el cine | FECHA POR CONFIRMAR |
| **MIE ELKARTEA** | I Jornada sobre Gestión Empresarial en la Industria Musical | EJECUTADO EL 16 DE NOVIEMBRE EN BILBAO |
| **CUATRO BARBAS KULTUR ELKARTEA** | Autogestión musical: Mitos y realidades | FECHA POR CONFIRMAR |
| **MUSIKARI ELKARTEA** | Jornadas Formativas de Gestión Cultural | EJECUTADO EL 27 DE SEPTIEMBRE EN GASTEIZ |
| **KURAIA – Musika Garaikide Taldea** | Taller de Música contemporánea para compositores | EJECUTADO EL 4, 8 Y 19 DE NOVIEMBRE EN MUSIKENE |
| **MUGAKO FESTIVAL** | MUGAKO KIDS | EJECUTADO EL 21-22 DE OCTUBRE EN MUGAKO FESTIVAL GASTEIZ |
| **ASOCIACION JIMMY JAZZ** | Tobacco Road presenta: La leyenda del Blues | FECHA POR CONFIRMAR |
| **MIKEL MARKEZ & EÑAUT ELORRIETA** | Baga Biga Higa | FECHA POR CONFIRMAR |
| **EMANKOR ELKARTEA** | MUNDAKIDS | EJECUTADO EL 28-30 DE JULIO EN MUNDAKA FESTIVAL |
| **ASOCIACIÓN MUGAKO** | Electrónica Ancestral: conversaciones con Suso Saiz<br>Museos dedicados a la música electrónica, con Dimitri Hagemannn | EJECUTADO EL 21-22 DE OCTUBRE EN MUGAKO FESTIVAL GASTEIZ |
| **SUSANA CENCILLO ETA GARAZI KAMIO** | Konpasetan: bidaia intimo bat emakumeen istorioetan zehar | EJECUTADO EL 5 DE NOVIEMBRE EN USURBIL |
| **PROMOCIONES ETXABARRI IBIÑA** | Underground musical en Euskal Herria en los 90 | FECHA POR CONFIRMAR |
| **AZPIKARI** | Entzun diskoliburua | PRESENTACIÓN EN FERIA DE DURANGO 2016 |
| **AZPIKARI** | Aho Bete Doinu liburua | PRESENTACIÓN EN FERIA DE DURANGO 2016 |
| **PROMOCIONES ETXABARRI IBIÑA** | Taller y Mesa redonda de fotografía de Música en Directo | EJECUTADO EL 8 DE NOVIEMBRE EN GASTEIZ |

**Más información sobre las actividades en www.musikabulegoa.eus**

# Eusko Jaurlaritza
## EUSKADIKO SOINUAK Y MUSIKA BULEGOA



## EUSKADIKO SOINUAK

**EHMBE Euskal Herriko Musika Bulego Elkartea contó desde su creación con el respaldo y apoyo del Departamento de Cultura del Gobierno Vasco, en el marco del plan Kultura Auzolanean. Pero el proyecto venía cocinándose y tomando cuerpo años antes, a partir de encuentros y acciones compartidas entre agentes muy diversos del sector musical y el Departamento.**

Efectivamente, en diversas ferias musicales profesionales comenzamos a utilizar Euskadiko Soinuak como marca compartida para nuestra música y es en torno a ella cuando los encuentros y reuniones se intensificaron. En aquellos momentos, fuimos coincidiendo ampliamente en dos ideas clave: la primera, que el trabajo en común y la visibilidad debían proyectarse no sólo al exterior sino también, y quizá con mayor energía, a la propia Euskal Herria. Y la segunda, que los propios músicos y resto de agentes debían ser los actores principales para definir prioridades, acordar estrategias y compartir proyectos. Es decir, que más allá de la deseable y necesaria implicación y apoyo institucional, debía ser el propio sector musical quien marcara el rumbo de un nuevo proyecto al que, aún todavía sin un diseño definido, ya se le empezaba a denominar Musika Bulegoa.

Por todo ello, ahora que EHMBE, asociación sectorial amplia sobre la que pivota el proyecto Musika Bulegoa, es ya una realidad y desde donde me piden unas líneas para su primer *Musikaren Urtekaria*, se me ocurre que, más allá de mi relato, resulta procedente y mucho más interesante ceder espacio y palabra a alguien directamente ligado a la actividad musical vasca y a su vez colaborador durante años en proyectos y acciones de Euskadiko Soinuak, para que sea él quien comente cómo ve y valora el camino recorrido en estos años. Se trata de Xabier Sagardia, periodista y coordinador durante años de la revista *Entzun!*.

**Imanol Arana.**
EUSKO JAURLARITZAKO
KULTURA SAILBURUORDETZAKO
TEKNIKARIA.

# EUSKAL HERRIKO MUSIKA BULEGOA, AHALMEN HANDIKO TRESNA





**Imanol Aranak aletu dituen lehen urratsak emanak zirenean ezagutu nuen eta kolaboratzen hasi Euskadiko Soinuak proiektuan. 2003 urte inguruan izan zen, orduan lan egiten nuen Eragin enpresaren bitartez. Krisi diskografiko latzak bete-betean harrapatuta, zuhurtuta zegoen sektorea, oraindik oso garbi jakin gabe zer zetorkion bizkar gainera, edo, hobe, etortzear zegoena ez sinetsi nahirik bezala.**

Segur aski horregatik, Euskadiko Soinuak jaio zen unean jaio zen, ez lehenago eta ez beranduago, aurretik halako egitura bat sortua balego bideari ekitea errazagoa suertatuko litzatekeen arren. Edonola ere, hantxe geunden gu, eta Euskadiko Soinuakek abiatu zituen webgunean eta musika taldeen direktorioan zein musika-feria profesionaletan lanean hasi ginen. Cannes, Sevilla, Berlin... Hortxe zegoen Euskal Herriko standa, Korea, Espainia, Katalunia, Frantzia, Erresuma Batua edota Norvegiakoekin batera. Nazioarteko feria handiak ziren (Womex, Midem, PopKomm...), eta guztietan mundu osoko sektore diskografikoaren ezinegona arnas zitekeen. Euskadiko Soinuakek Euskal Herriko manager, sustatzaile, banatzaile eta diskoetxe profesionalei aukera eman zien, edo bederen asko erraztu, bertan egon ahal izatea, hartueman profesionala bideratu eta negozio-sareak ehundu ahal izateko.

Hala ere, segituan konturatu ginen itsaso zabal –zabalegi– horretan leku bat egitea uste baino zailagoa izango zela: alegia, gure herri txikiko sorkuntza ikusaraztea eta banatzea, marka bat sortzea...

Eztabaida eta solasaldi luze eta beroetan parte hartzeko aukera izan nuen, gehienetan entzule bezala; gogoeta esanguratsuak entzun nituen. Hala joan ziren hainbat ideia mamitzen: Euskadiko Soinuak jatorri zuen Basque Music marka sendotzeko beharra, bitartekoak eta egiturak konpartitzekoa (gerora musika elkarte profesionalen sortzea ekarriko zuena, eta, bigarren fase batean, Musika Bulegoa bera) eta, oso garrantzitsua iruditu zitzaidana: gure sorkuntza zabaltzeko zailtasun, oztopo eta gabeziak, kanpoan bainoago, etxe barruan, Euskal Herrian alegia, landu eta gainditu behar zirela.

Gogoeta hauek guztiak ez ziren, noski, egun batetik bestera egin. Urteak joan, urteak etorri heldu ziren. Bien bitartean, jada proiektutik kanpo nengoela, baina harekin inoiz harremana galdu gabe, *Entzun!* liburuan joan ginen Euskadiko Soinuak Programatik Euskal Herriko Musika Bulego Elkartea (EHMBE) sortzerainoko bidea jasotzen. Sektorearen kanpoko begirale baten talaiatik ikusita, prozesua mantsoegia izan dela esan genezake, baina behintzat pausu garrantzitsu asko urratu dira eta segur nago hala izaten jarraituko duela.

Gure musikaren barne eta kanpo zabalkunderako, Bulegoa tresna garrantzitsua izango dela begitantzen zait. Bide horretan, ikuspuntu industrial eta kulturalaren arteko dikotomiari oreka bat bilatu beharko zaiolakoan nago, bai eta interes partikular legitimoen eta sektoreko eragile guztien elkarlanaren bidezko interes kolektiboen artekoari ere.

Bukatzeko, utzi didaten bozgorailu hau eskaera argi bat egiteko probestu nahi nuke: **beren sorkuntzaren ardatz nagusi gisa euskara duten musikariak, bereziki zaindu, sustatu, zabaldu eta babesteko neurriak areagotzea, formula edozein dela ere.**

**Xabier Sagardia.** MUSIKA KAZETARIA.

# Haur eta nerabeak
## NOLA IZAN ERAKARGARRI



*Belaunaldi gazteek lekukoa hartzea ezinbesteko baldintza da edozein jardunbideren biziraupena bermatzeko, baita musikagintzarena ere. Kapitalismoaren globalizazioak eta Internetek ekarri duten gaineskaintza testuinguru honetan, ordea, nola erakarri gure haur eta nerabeen arreta euskal musikara? Nori dagokio ardura? Edo, ze ardura dagokio bakoitzari?*

"La música es un medio de expresión que se materializa en infinidad de formas y estilos que utilizamos como un producto de consumo más, según nuestras preferencias. Hoy en día, la música es un componente importante en nuestras vidas y desde las edades más tempranas va a contribuir como elemento de integración social y de identidad propia. Pero, además, actúa como una herramienta que nos pone en contacto con el exterior, con diferentes modos de hacer música y otros mundos sonoros. Es desde esta perspectiva desde la que cobra especial importancia a la hora de interesar a los más jóvenes por la diversidad de maneras que adquiere el producto musical. **La educación musical tiene que despertar la curiosidad por conocer lo que se produce en nuestro entorno sonoro** y proporcionar experiencias musicales, para fomentar y desarrollar una actitud crítica frente al hecho sonoro. Porque la música hay que entenderla también como una vía que nos abre a la exploración y al descubrimiento de nuevas sonoridades, de otras posibilidades de hacer, producir y crear propuestas sonoro-musicales".

**Aintzane Camara Izagirre.** UPV-EHU.
Didáctica de la Expresión Musical.

"Edozein musika mota entzuteko aukera daukagu egun, gero eta proposamen interesgarriagoak ditugu eskura. Aniztasun hau gizarteari eta, batez ere, umeei helaraztea tresna oso aberasgarria izan daiteke. Baina, non geratzen dira bertako kantak? Nolako aukerak ematen dizkiegu gazteei bertakoa bizitzeko eta hobeto ezagutzeko? Erakargarriak al zaizkie? Beste esparrutan bezala, honetan ere oreka behar dugu. Eta hori gauzatzeko guztion ekarpena behar dugu. Horrexegatik, talde-lana aldarrikatzen dut. **Proiektu berriak sortzeko eskumenean ditugun baliabide guztiak erabili eta optimizatu behar ditugu**. Gure ikasleek ikus dezaten, adibidez, kontserbatorioa edo musika eskola dantza talde edota bertso eskola batekin konektatuta daudela, ekintzak nahiz kontzertuak prestatzeko. Hor dago koska: formakuntzaz aparte, alderdi artistikoa ere txikitatik landu behar dugu gure gizartearen kultura bizia garatzeko. Eta zergatik ez gure folklorea erabili horretarako? Daukaguna maitatu, babestu, bultzatu baino lehen, esango nuke lehendabizi berriro bizi eta erabili behar dugula, barneratuta dugun identitate hori gure sormenerako iturri izan dadin".

**Maite Bilbao.** Musikene.
Dalcroze metodologian espezialdua.

"**Promover la música entre niños y adolescentes será casi imposible mientras la legislación actual siga vigente en Nafarroa.** Creo que se debería modificar la ley que prohíbe a menores de 16 años la entrada en salas de conciertos y discotecas incluso si van acompañados por su padre o su madre. Es una ley que ni los propios progenitores entienden y que, para colmo, parece impuesta por las salas. Nosotros, por cumplir esta ridícula norma, hemos tenido que negar la entrada a adultos que venían desde fuera de Nafarroa a ver un concierto con sus hijos; después de un montón de kilómetros tuvieron que volverse a casa sin poder disfrutar del directo que les motivó a acercarse hasta aquí. No entendemos cómo los menores de 16 pueden entrar acompañados por un adulto a un café teatro, a un pabellón o incluso a una plaza de toros y, sin embargo, no a una sala de conciertos. No tiene sentido".

**Goito.**
Sala Totem.



"Nik oso argi daukat! Gure musika ez badago gure komunikabideetan, sekula ez dugu gure haur eta gazteen artean txertatuko. Begira zer egiten duten kultura indartsu guztiek: bereari indarra eman eta inposatu. Frantsesek kupoak dituzte hedabideetan, Frantzian sortutako musika hainbesteko batean jarri behar dute derrigorrez. Espainiarrek beren kantariak eta kantak goratzeko *La Voz* eta *Operación Triunfo* bezalakoak dituzte, tarteka ingeles musika abestuz baina indar berezia espainolari emanez. Ameriketako Estatu Batuetan ere ikusi dut antzekorik: han ingelesez egindako kantak goratzen dituzte Mexikotik datorren musikari kontra egiteko. Eta horrela mundu guztian... Eta gu zertan gabiltza? **Ez al genituzke, gutxienez, guk kudeatzen ditugun komunikabideetan hemen egindako musikaren minimo batzuk jarrarazi behar?** Nik oso argi daukat! Gure musika gure komunikabideetan ez badago, sekula ez dugu gure haur eta gazteen artean txertatuko. Eta nik ez dut gure hedabideetan entzuten!"

**Mikel Markez.**
Musikaria.

"En Euskadi contamos con una agenda musical para adultos extensa y variada. Sin embargo, **aunque las actividades músico-educativas para niños van en aumento, muchas no tienen continuidad entre los 12 y 18 años**. Además, están planteadas para acudir en familia o con el centro educativo, obviando que los adolescentes pueden ser autónomos para decidir sus planes de ocio. En gazTEEN musika FESTA! los adolescentes son protagonistas; tienen la oportunidad de subirse al escenario delante de un público de su misma edad, conocer diferentes tendencias musicales y desarrollar sus conocimientos en un contexto lúdico y no académico. Aunque existen grandes iniciativas, todavía queda mucho por hacer en materia de difusión musical. Fomentando actividades de ocio entre adolescentes, podríamos conseguir que desarrollen una mayor inquietud musical y se conviertan en público de las salas de conciertos".

**Irene Prieto.**
gazTEEN musika FESTA!

"Maria handia da musika gure gizartean. Ez diogu garrantziarik aitortzen musika ikasi eta bizitzeari, maila estetikoan geratzen gara. Nire ogibideaz galdetu eta piano jolea naizela erantzuten dudanean, "A, bai polita" erantzuten didate askotan. Egia borobila: musika polita da. Polita ere bai. **Neurozientzia, psikiatria... burubelarri sartu dira musikarekin elkarlanean aritzera. Ez baitago beste ekintzarik garuna musikak adina estimulatzen duena.** Teknologia berrien erabileraren ondorioz ugaritu egin dira gazteei eragiten dieten gaitz mentalak, eta zientziak 15 urte daramatza hauek artatzeko terapia gisa musika erabiltzen. Polita ere badelako lortzen ditu emaitza onak. Musikak polita ere badelako estimulatzen du garuna. Bestela, nola eutsi solfeo ikasketei hain denbora luzez? Nola lortu hainbeste urtetako diziplina instrumentu bat menderatzeko? Ikuskera aldatu behar dugu. Solik musikaren alderdi estetikoari begiratzea ez delako sendoa. Zientzialariek esaten digutenari jaramon eginez gero, ergel hutsak beharko genuke hezkuntza prozesuaren baitan musikari lehentasunik ez emateko".

**Xabier Lizaso.**
Pianista.

# Visibilidad
# MÚSICA VASCA EN MEDIOS DE COMUNICACIÓN

**Una de las principales carencias identificadas por EHMBE – Euskal Herriko Musika Bulego Elkartea desde su creación hace referencia a la inexistencia de información actualizada en torno a la presencia de la música producida en Euskal Herria en los medios de comunicación. Con el fin de dar respuesta a este interrogante y poder así diseñar protocolos a futuro, Guillermo Royo ha dirigido y desarrollado un estudio basado en la observación y el análisis para recabar datos significativos y elaborar un mapa de la situación.**



Confeccionar un directorio de contactos de medios de comunicación y profesionales dedicados a la información musical, así como analizar el tratamiento cuantitativo y cualitativo que dichos medios y profesionales hacen sobre la música de autores vascos son los principales objetivos del estudio promovido por EHMBE. Ello ha posibilitado identificar puntos fuertes, necesidades y carencias que dibujan los retos y líneas de acción a seguir.

El trabajo se desarrolló entre noviembre de 2015 y marzo de 2016, y comenzó con la producción de un listado actualizado de medios y contactos, abarcando a todos aquellos con sede en Euskal Herria y/o que desempeñan su labor en dicho territorio. De este modo, han quedado recogidas diferentes cadenas de televisión y radio (grupo EiTB y otros), además de periódicos generalistas y publicaciones especializadas.

## Universo analizado y metodología empleada

Desde el primer momento y por las características de las condiciones del contrato por el cuál se ha realizado este estudio, EHMBE barajó para el análisis un universo más limitado que el recogido en el directorio. Por motivos de tiempo para la realización del trabajo, se tomaron en cuenta únicamente los medios audiovisuales, es decir, radios y televisiones que operan en Euskal Herria.

Por la misma razón se desestimó categorizar el universo de medios según el tipo de programa o espacio, su formato, contenidos, destinatarios y/o estilos musicales. El contrato para el estudio no ha permitido realizar un análisis minucioso canción a canción de todas las programaciones en medios públicos y privados, ni tampoco la realización de tareas de campo complejas como encuestas.

Por el contrario, se planteó como solución las búsquedas online y la recogida directa de datos aportados por los propios agentes a través de cuestionarios/entrevistas (vía telefónica, por correo electrónico o reuniones) a los responsables de las cadenas o programas de radio y televisión públicas y privadas relevantes.

En total, 18 personas fueron entrevistadas en calidad de directores de cadena (EiTB, Gaztea, Radio Euskadi), responsables de música de medios o redacciones provinciales (SER, Onda Cero, Hamaika TB o NafarTB) o responsables de programas (Radio Popular, BiFM).

El informe señala que, en general, la disposición fue muy buena, salvo en algún caso aislado en el que no hubo participación al considerar el método de investigación poco profundo para los fines buscados. Del mismo modo, se apunta a la baja participación de los responsables de los medios privados que no facilitaron el normal desarrollo del trabajo.



## ALGUNOS DATOS SIGNIFICATIVOS

- Existe una clara diferencia entre el espacio que ocupa la música vasca (música producida en Euskal Herria) en los medios públicos y en los privados; pero aún así no existe un criterio único, ni siquiera en el seno de un mismo medio como es EiTB.

- El techo lo dibuja EiTB con un 30-35% de cuota media con picos mayores a la noche y con un breve espacio de presentación de un autor/a vasco/a cada hora. Gaztea mantiene el 20% dentro del acuerdo con Gobierno Vasco, aumentando ese porcentaje en hitos como puede ser Durangoko Azoka.

- En radios locales de financiación pública (BiFM) cuidan mucho la música vasca, pero sin un criterio numérico.

- En las televisiones euskaldunes privadas con carácter público como Hamaika TB o Nafar TB, la emisión es 100% de grupos vascos que cantan en euskara, pero carecen de programas especializados o se limitan a programar la parrilla con videoclips.

- En el ámbito privado la sensibilidad cambia drásticamente. En general no hay una conciencia de apoyo a la música vasca; se trata únicamente de iniciativas de profesionales de manera aislada, dentro de su programa, pero no corresponde a una directriz propia del medio.

### Conclusiones y protocolo a futuro

De los datos recabados por este estudio, el equipo de trabajo ha concluido que el principal problema al que se enfrentó desde el principio acabó siendo indicador de una carencia o necesidad por parte del sector de medios y en el que Musika Bulegoa puede trabajar por mejorar la situación:

### Urge elaborar un Manual de Estilo para que los medios tengan un apoyo y guía para el tratamiento de la música vasca

El informe deja constancia de casos concretos en los que esta necesidad fue transmitida literalmente, como sucediera durante la entrevista con los responsables de Nafar TB, cadena de televisión que cuenta con un año de vida. De manera que, el Manual de Estilo, puede ser útil para medios en los que la sensibilidad por el tratamiento de la música vasca exista, pero no haya tiempo ni recursos para implementarlo.

# Basque Music estrategia

## GURE MUSIKA KANPOAN ZABALTZEKO ESTRATEGIA INTEGRAL BATERANTZ



Izaki Gardenak.



Joseba Irazoki eta Lagunak.




### BASQUE MUSIC da EHMBE Euskal Herriko Musika Bulego Elkartea, Etxepare Euskal Institutua eta Euskadiko Soinuak (Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailburuordetza) barnebiltzen dituen marka.

2016an hasi dira hiru erakundeak marka horren pean eta modu koordinatuan lan egiten. Baterako apustu horren gailurretako bat, hain justu, EHMBEk eta Etxepare Institutuak sinatutako hitzarmena da.

Etorkizunari begira, euskal musika Euskal Herritik kanpo zabaltzeko estrategia komun bat diseinatzea da xedapen honen helburua. Amaitzear den urte honetan, lehen ekintza eta lankidetzak abiatu dituzte jada:

**Vic-eko (Katalunia)** Mercat de la Música Viva azokan parte hartzea: Euskal musikaren EH Sona 2016 programa, Bartzelonako Euskal Etxeak antolatzen duena, aurkeztu zuten. Aurkezpenean, Amoranteren emanaldiaz gozatzeko aukera izan zuten bertaratuek.

**Monkey Week (Cadiz):** Jaialdi horrekin egindako akordioari esker, hiru taldek parte hartu zuten Basque Music izenaren pean: Exnovios, Yellow Big Machine eta Izaki Gardenak taldeek.

**WOMEX music expo (Santiago de Compostela):** Basque Music standa jarri eta sustrai / world music / folkari buruzko katalogo bat argitaratu zuten. Programazio ofizialean, Xarnege taldeak eta Kepa Junkerak jardun zuten. Euskal musikaren sektoreko hamar bat enpresak eta eragilek ere parte hartu zuten.

**BIME (Bilbo):** Malandro, Joseba Irazoki eta Lagunak, Señores eta Los Graves taldeek emanaldia izan zuten BIME City-n, eta Euskadiko hainbat enpresa bertaratu ziren.

Azkenik, aipatzekoa da Musikagileak elkarteak euskal musika nazioartean zabaltzeko egindako lana, hari esker hainbat musikagilek euren lanak eraman baitituzte munduko leku askotara. Hona hemen adibide batzuk: **ISCM-World Music Days**, Hego Korea; **Heritage & Modernity** jardunaldiak, Kairo; **Musica Electronica Nova** jaialdia, Wroclaw (han, Basque Cities Sound Portrait proiektua aurkeztu zuten); eta **Sound59** jaialdia, Perm (Errusia).

2017an gure musika nazioartean ezagutarazteko lanean jarraituko dugu, bide berriak zabaltzen saiatuz eta 2016an aurrera eramandako ekintzak errotuz.

**Raul Urkiza.** EUSKAL HERRIKO MUSIKA BULEGO ELKARTEA.

# AIZPEA GOENAGA

## “Esportatzeko moduko material asko daukagu”




Foto: Santos Cirilo

Aizpea Goenaga Etxepare Institutuko zuzendariarekin mintaztu gara Basque Music estrategiaren aurrekariez eta etorkizunari begirako helburuez.

**Etxepare Euskal Institutua, Euskadiko Soinuak eta Euskal Herriko Musika Bulego Elkartea elkarlanean hasi dira 2016 urte honetan, euskal musika Euskal Herritik kanpo zabaltzeko. Nola iritsi zarete honaino?**

Lankidetza hori ez da ezerezetik sortu. Etxepare Institutua sortu aurretik, Euskal Herritik kanpo euskal musikaren berri emateko lan handia egin izan du Euskadiko Soinuak elkarteak hainbat urtetan: standak antolatu izan dituzte sektoreko euskal enpresek nazioarteko azoketan egoteko aukera izan zezaten; showcase-ak egin izan dituzte; sustapen-materiala argitaratu dute; etab. Etxepare Institutua 2010ean martxan jarri zenean, euskal kultura nazioartean sustatzeko helburua duenez, bide horri batu zitzaion, eta elkarlanean hasi ginen, indarrak batzeko, sinergiak aprobetxatzeko eta emaitzak optimizatzeko. Gerora, Euskal Herriko Musika Bulegoa 2015ean sortu zenean, kanpo hedapenerako funtsezkoa den hirugarren hanka eratu zen; hau da, euskal musikaren sektoreari itxura egituratua eman zaio, betebehar eta itxaropenei erantzuteko, besteak beste nazioartekotzearen esparruan.

**Zein helburu zehatz finkatu dituzue epe labur eta luzera begira?**

Guztiz ezinbestekoa da sektoreko eragile guztiek estrategia bateratu bati jarraitzea, Euskal Herritik kanpo euskal musikaren berri emateko. Erronka zaila da, badakigu, baina erakargarria ere bai. Edonola ere, garrantzitsuena ikuspegi globala izatea da, eta honetan euskal musika online erakusteko eta nazioarteko azoketan parte hartzeko politikak biltzea, baita sektorearen baitan sortzen diren behar praktikoei erantzun zehatzak ematea ere. Basque Music ikuspegi horiek guztiak barnebiltzen dituen marka izan daiteke. Denok norabide berean arraun egitea da kontua, bakoitzaren ekarpen espezifikoa kontuan hartuta.

**Kanpoan ezagutzen al gaituzte? Zenbateraino da ezaguna euskal musika?**

Bai, noski. Uste duguna baino gehiago ezagutzen gaituzte. Musika talde askok nazioarteko ibilbide egiaztatua dute; enbaxadore modukoak dira, eta bideak zabaltzen dizkiete atzetik datozenei. Herrialde txikia gara, baina musikari handiak eta lehen mailako taldeak ditugu, genero guztietan gainera. Esportatzeko moduko material asko daukagu. Gure zeregina lan hori ahalik eta ondoen bideratzea da, eta horretan ari gara Etxepare, Euskadiko Soinuak eta EHMBE.

www.etxepare.eus

# JUAN URIARTE

## “Nos vemos con 70 años trayendo a bandas de abuelos, mientras nuestros nietos nos esconden la bebida y nos esperan para llevarnos al geriatrirock”







Fotos: Sergio Martín



Hell Dorado 2001 - 2016 Unidos

**La sala de conciertos gasteiztarra Hell Dorado ha celebrado este pasado otoño su decimoquinto aniversario. Juan Uriarte, uno de los impulsores de la asociación, explica el día a día de una de las salas con más personalidad de nuestra escena.**

**¿Cómo y cuándo surge la idea de fundar Hell Dorado?**

En el año 2000 nos juntamos cuatro colegas: Iñaki Urbizu ‘El Pela’, Jimmy Rz de Loizaga, Ernesto García, y yo, Juan Uriarte. Todos tocábamos en bandas y, aburridos del panorama que entonces había en Gasteiz, cansados de tener que salir fuera de la ciudad para ver conciertos, decidimos hacer algo al respecto, así que formamos la asociación musical Hell Dorado. Un año más tarde, nos hicimos con el local que tenemos y fuimos montando poco a poco nuestra propia sala de conciertos, para nosotros y los más de 600 socios/as que en aquel primer año nos apoyaron.

**¿Cuál es el funcionamiento interno de la asociación?**

A lo largo de los años hemos aprendido a organizarnos y repartir tareas. Siempre hemos mantenido un núcleo central formado por los que marcamos el camino y nos comprometemos a sacar este proyecto adelante. Las decisiones las toma el responsable de cada área y, si el asunto es gordo, hablamos entre todos, valoramos y decidimos. Respecto a la captación de socios, durante todos estos años hemos puesto en marcha diferentes campañas y, realmente, a día de hoy ellos nos captan a nosotros.

**¿Qué criterios utilizáis a la hora de programar en Hell Dorado?**

Hemos pasado por diferentes épocas, los gustos de la gente cambian y, sobre todo, los estilos musicales de las bandas que ahora andan en la carretera no son los mismos. Eso depende de las épocas, pero la cosa a tener en cuenta siempre es la calidad y la autenticidad de las propuestas, y al mismo tiempo tratar de que económicamente sean viables para que tanto músicos como Hell Dorado salgamos indemnes del asunto. Procuramos no traer bandas tributo, ni tecno pop, ni indie, en la medida de lo posible. Básicamente contratamos lo que nos mola o lo que nos da la gana, mas allá de otras cuestiones y modas.

**¿Cuáles son las principales diferencias a la hora de organizar conciertos respecto a hace 15 años?**

Hace 15 años íbamos prácticamente improvisando, ahora trabajamos con bastantes meses de antelación y procuramos madurar y pensar bien lo que estamos haciendo, no queremos volver a poner dinero de nuestro bolsillo, ni contratar a bandas que no son lo que parecen.

**Algunos de los grupos que han pasado por el Hell Dorado se han convertido en referencias indiscutibles de su género.**

La más destacable puede ser Sharon Jones & The Dap Kings, cuando tocaron aquí no estaríamos más de 70 personas, y hoy en día no giran por el estado porque nadie les paga lo suficiente, se van al norte de Europa, si no no salen de los Estados Unidos. También hemos visto cre-









cer a bandas como El Columpio Asesino, Capsula, Los Coronas, The Excitements, Julian Maeso o Maika Makovski, que en sus primeras visitas no convocaban más que a un puñado de amigos. Lo más triste es ver que docenas de bandas comenzaron su andadura con buen pie pero a día de hoy ya no existen.

**En Hell Dorado también realizáis una labor de formación y educación con iniciativas como Gazterock.**

Sí, fuimos pioneros en Europa en organizar un campamento de Rock para adolescentes, de la mano del Instituto Foral de la Juventud de Álava, que son quienes nos contratan; un verdadero éxito. Es el campamento mejor valorado por los chavales de todos los que se realizan en el estado. También hemos desarrollado talleres técnicos para grupos noveles, es una pena ver a un tipo de 28 años que toca en una banda y no sabe qué es o cómo funciona una prueba de sonido, entre otras cosas.

**Habéis impulsado campañas como la prevención de problemas de audición.**

Sí, también fuimos pioneros en eso, hemos de admitir que copiado de los franceses. Tuvo mucho éxito y la gente agradeció que alguien les explicara cuatro nociones básicas. Es una pena que el Departamento de Cultura del Gobierno Vasco no haya visto óptimo seguir apoyándonos en esta campaña.

**Además de colaborar con entidades como Sancho El Sabio, habéis realizado vuestras propias publicaciones de libros de fotografías.**

Con la Fundación Sancho El Sabio, hicimos un acuerdo de colaboración por el cuál les entregamos toda la cartelería, entradas, flyers, etc. que atesorábamos para que ellos lo clasifiquen y guarden correctamente. Dentro de 200 años algún estudioso podrá saber qué bandas tocaban aquí y cómo hacíamos las cosas. También hemos impulsado talleres de fotografía, charlas, presentaciones de libros, proyecciones de cine serie B, y de videoclips, todo relacionado con el rock and roll. En 2013 editamos el libro de retratos hechos a músicos después de las pruebas de sonido *Soudndcheckin*, del fotografo y socio Jon Rodriguez Bilbao. Ahora vamos a editar la segunda y última parte de este libro, *Sounccheckin Vol.2*, y a principios del 2017 otro libro de fotografía en directo de nuestro fotógrafo de sala Sergio Martin. Además, no olvidemos que en la sala se han grabado infinidad de discos, videoclips, etc.

**¿Ahora que celebráis 15 años, cuáles son los principales retos que esperan a Hell Dorado?**

Seguir vivos, no nos plateamos retos, bastante tenemos con conseguir sacarlo adelante cada fin de semana, de momento vamos a por los siguientes conciertos, no miramos más allá. Quizá lo mas importante sea el relevo generacional, pero ese es un problema de la sociedad, nos vemos con 70 años trayendo a bandas de abuelos tocando para abuelos y abuelas, mientras nuestros nietos nos esconden la bebida y nos esperan para llevarnos al geriatrirock.

**¿Podrías destacar algún momento que quedará para el recuerdo?**

Como dijo Lemmy: el verano de 1973 fue increíblemente fantástico, no me acuerdo de nada, pero fue increíble.

**Arkaitz Villar.** KULTURA LIVE.
www.kulturalive.com
www.helldorado.net

KULTURA Live

ASOCIACIÓN DE SALAS DE MÚSICA DE EUSKAL HERRIA
EUSKAL HERRIKO MUSIKA ARETOEN ELKARTEA

# Zuzenekoak
## MIKRO/MAKRO



*Aretoek eta jaialdi handiek errealitate ezberdinak bizi dituztela uste eta pertzeptzio orokortua da. Eskaintza mota, publikoa (maila kuantitatibo nahiz kualitatiboan), oihartzun mediatikoa, taldeen aldetiko interesa eta erakunde publiko nahiz pribatuen inplikazio maila dira, besteak beste, bi zuzeneko zirkuituen arteko arrakala zabaltzen ari diren faktoreak.*

"Euskal Herriko musika panorama bizirik mantendu dadin asteroko lana ezinbestekoa da, astero euskal hirietan eta batez ere herrietan lanean ari garenok baikara euskal talde eta ikusleei eskaintza luzatzeari eusten diogunak. Administrazioak hau aintzat hartu beharra du, azken urteotan joera baitago makro jaialdi eta enpresa handiei behar duten laguntza guztia emateko, areto txiki eta ertainak bigarren plano batean utziz. **Lehen uda garaian egiten ziren jaialdiak gaur egun urte osora zabaldu zaizkigu, eta euskal kulturaren arnasgune garrantzitsuenetakoa den Durangoko Azokak baino dirulaguntza dezente gehiago eta handiagoak jasotzen dituzte.** Guk kultur eskaintza zabala egin nahi badugu, administrazioaren laguntza jarraitua eta duina beharrezkoa dugu, ilusioa eta gogoa soberan baititugu".
**Ihintza Orbegozo.** Plateruena.

"Salas y festivales son ya casi sectores diferentes con poco que ver entre sí, más allá del hecho de que haya un artista sobre un escenario, en la medida en que la música en directo va cada vez más de experiencias. Y, como experiencias, empiezan a ser opuestas. El valor de una sala es el de ofrecer una experiencia musical cercana y cotidiana, el saber que siempre va a haber algo. Pero lo cierto es que estas dos cualidades están en decadencia entre el gran público. **Paradójicamente, en el momento histórico con mayor y más variada oferta musical, el público regular no puede ser más escaso**, limitándose a unos pocos apasionados en el día a día con picos de llenazos en ocasiones muy puntuales. Si esto es un drama o el signo de los tiempos, lo dejamos para futuras reflexiones".
**Álex López.** Dabadaba.

"Nahiz eta jaialdi denominazioa dugun, mikrofestibal bat gara eta aretoen errealitatetik hurbilago sentitzen dugu gure burua. Duela zortzi urte sortu zen abentura hau gure poltsikoko diruarekin hasi genuen. Gaur egun instituzioen babes txikia dugu (soilik EKE) eta, babesletzei dagokionez, hautu kontzientea izan da gure festibala edozein markari ez saltzea. Zuk Zeuk Egin espiritua maite dugu. Batzuetan horrek gauzak konplikatzen ditu, baina ororen buru esperientzia ederragoa dela eta harremanak sanoagoak direla uste dugu. Taldeekin ere hartueman zuzena dugu eta arreta handiz tratazen ditugu, gure festibalariak bezalaxe. **Musikariek maiz errepikatzeko gogoa izaten dute, eta publiko nagusiki musikazalea erakartzeko xantza dugu. Guk musika lehenesten baitugu, benetako programaketa lana egiten dugu. Makrojaialdiak, ordea, festarako gune erraldoi bilakatu dira;** Lisboan, Bilbon edo Parisen ber kartelak ikus daitezke, berezitasun gutxirekin. Itxura funtsa baino gehiago".
**Joanes Garcia.** Usopop.

"Tres Sesenta Festival nació en 2012, en plena crisis, con la vocación de ser un Festival urbanita de calidad. Su ubicación, en pleno centro y en el mejor jardín de Iruña, La Ciudadela, contribuye a que se extienda por toda la ciudad con programación de calle durante todo el día. Bandas pop-rock emergentes y consolidadas se dan la mano con la cocina creativa y artística de jóvenes valores de la cocina navarra. Está reconocido a nivel estatal como un "festival bombonera" en el que los músicos disfrutan tanto como el público que llena todos los conciertos. **Un festival que proyecta en positivo y de forma atractiva a Iruña y que hace ciudad; es por eso que somos**



**más proclives al apoyo institucional que los conciertos aislados.** En nuestro festival, la contextualización del mismo (gastronomía, conciertos de calle, vermuts festivaleros, cliniks, master class, ambiente, encuentros, experiencias... etc.) son tan importantes como el cartel de artistas".
**Jokin Zamarbide.**Tres Sesenta Festival.

**"Gu, agian, hirugarren errealitate baten parte gara: makrojaialdi bat gara, milaka boluntarioren lanari esker aurrera ateratakoa, diru laguntzarik eta bestelako babesletzarik gabe.** Gure lehenengo helburua elkartasunarena da, presoen familiei dispertsioak eragiten dien diru galera arintzeko. Baina, xumeki, musika arloari ere ekarpena egiten ditugula uste dugu, eta ez bakarrik urtero 10 edo 11 musika talde gure kartelean sartzeagatik, baizik eta sortzen dugun lan mordoarengatik (teknikariak, azpiegiturak, etab.). Horretaz gain, bidea egiten ari diren bertako talde hasiberriei lekua egiten saiatzen gara, etorkizuneko euskal eszenan inbertitzen dugu beraz, eta ez bakarrik epe motzera begira".
**Iker Isiegas.**
Hatortxu Rock.

"Nosotros no entendemos lo de festivales vs. programación en salas. De hecho, somos parte de Kultura Live desde su creación y creemos que ambos desarrollamos trabajos complementarios y necesarios. Como festival, nacemos preocupados por nuestra cultura y nuestro territorio. Creemos que nuestra cultura e identidad puesta en valor, es la mejor herramienta para la promoción de nuestro país. Mundaka Festival marida la identidad (cultura de raíz), modernidad y ocio. Nos preocupa la puesta en valor de nuestra escena, la regeneración de hábitos de consumo culturales (capacidad crítica, socialización de valores éticos y culturales, idioma, género, creatividad... etc.) **Creemos que este tipo de festivales deben ser cuidados y protegidos desde el Gobierno Vasco. Y demandamos que la subvención que históricamente se ha destinado a este tipo de eventos se vuelva a poner en vigor.** No entendemos cuáles han sido los criterios para dejar fuera del ámbito de las ayudas este tipo de iniciativas. En cualquier caso, seguimos y seguiremos trabajando por poner nuestra cultura y nuestra identidad en el puesto de mando".
**Amets Rodriguez.** Mundaka Festival.

"Gure elkarteak antolatzen duen festibala Ipar Euskal Herriko gazte dinamika oso baten fruitua da. 1996an sortu zenetik, nahiz eta forma intimistago batean garatu den, hiru eguneko festibal izaten segitzen du, musikaz gain, eskaintza kutural anitza proposatzen duena; eztabaidak, karrikako artea, tokiko janaria, haurren xokoa, etab. Urtez urte, musikak gure jaialdian duen garrantzia txikituz joan da eta gaur egun ez da lehentasuna, oinarri herrikoiak dituen mikro-jendarte bat sortzea baita helburu nagusia. Hautuz eta burujabetzaren bidean, festibala diru-laguntza txikiekin eraikitzeko apustua egin dugu. Iparraldean ez dugu areto anitz euskal eszenarentzat, beraz musika erakusleiho garrantzitsuenak gaztetxeak direla erran daiteke. Proiektu berezientzat, Miarritzeko Atabal aretoarekin elkarlanean ari gara. **Hiru eguneko festibal baten eta kontzertu gela baten eskaintzak konparatzea ezinezkoa denez, ez dugu lehiarik sentitzen gure artean. Hau da, EHZek ez ditu bere inguruan diren ekimenak, elkarteak eta eszenatokiak kaltetzen;** alderantziz, laguntzen saiatzen da, euskal kultura bultzateko asmoz".
**Pauline Guelle.**
Euskal Herria Zuzenean Elkartea.

# Musikagileak
## JÓVENES COMPOSITORES VASCOS AQUÍ Y EN EL MUNDO

**Además de autores consagrados, Musikagileak acoge en su seno a las jóvenes promesas de la composición vasca. Estos son algunos de los logros más destacados que seis de nuestros socios, entre los 22 y los 30 años, han cosechado durante 2016. No están todos los que son, pero sí son todos los que están.**








**Mikel Urquiza** (Bilbao, 1988)
Vive en París desde que en 2012 fuera admitido en la clase de composición de Gérard Pesson en el Conservatorio Superior de dicha ciudad. Ha protagonizado dos estrenos importantes en los últimos meses: en abril vio la luz *Serpientes y escaleras (serenata)* en el Wittener Tage für neue Kammermusik de Alemania, de manos del ensemble L'instant donné; y en julio el prestigioso Cuarteto Diotima estrenó su cuarteto *Indicio* en el Festival Pontino, cerca de Roma –volverán a interpretarla en Bilbao el próximo abril, dentro del ciclo de la Fundación BBVA–. Urquiza ha firmado también dos piezas de impronta vasca: *Ikusia ikusirik*, que estrenó la Orquesta de Musikene en el marco de un encuentro con Helmut Lachenmann en febrero; e *Isiltzen denak*, inspirada en la música de Mikel Laboa, que el Ensemble Kuraia ha interpretado en diversos lugares en los últimos meses.

**Xabier Otaolea** (Bilbao, 1989)
Participó en el proyecto Soinua Iratzarri junto a Astiazaran, y ha visto cómo su obra *Agartha* era programada en la temporada de abono de la Orquesta Sinfónica de Euskadi, que la estrenó en noviembre en todas las capitales de Euskal Herria. Otaolea es activo asimismo en la música para cine, y en 2016 ha escrito la música para el cortometraje de Gracia Querejeta que está incluido en la película *Kalebegiak*. También ha realizado arreglos de música popular vasca para la Banda de Txistularis de Bilbao que se presentará en marzo en el marco de un concierto en el Euskalduna.

**Jagoba Astiazaran** (Zestoa, 1986)
Ha sido uno de los artífices de Soinua Iratzarri, un proyecto pedagógico en el que más de 150 niños y niñas donostiarras trabajaron la música contemporánea junto a tres compositores y que se coronó con un gran concierto en el Teatro Principal de Donostia. En el ámbito de los estrenos, el percusionista Miquel Bernat dio a conocer en agosto su obra para vibráfono *...como la mar* , en el marco de la Quincena Musical, y DSS2016 propició el reestreno en Elgoibar de *Kataiak*, que mezcla seis instrumentos en vivo con la electrónica y un audiovisual. Astiazaran, en su faceta de txistulari, fue también el representante de Musikagileak en el congreso Heritage and Modernity de El Cairo (Egipto), en el que se estudiaron los usos y posibilidades de los instrumentos folclóricos al servicio de la nueva creación musical.

**Alba S. Torremocha** (Salamanca, 1993)
El cine también es el mundo de esta alumna de Musikene que actualmente estudia el Master of Scoring for Film and Multimedia en la New York University. Allí ha ganado la residencia de la NYU Symphony Orchestra, que le ha valido el estreno de su obra *Serendipia* en el Symphony Space de Broadway en febrero. Escribió también la música para el documental *Breaking Silence*, ganador del Indiefest Film Award, y ahora está trabajando en un proyecto de realidad virtual llamado *To Be With Hamlet*, en el cuál actores reales con sensores de movimiento interpretan *Hamlet* en un mundo de realidad virtual en el que el espectador está dentro de la escena.

**Helga Arias** (Bilbao, 1984)
Residente en Suiza, fue la representante de Musikagileak en los World Music Days que se celebraron en Corea del Sur en marzo, con su obra para violonchelo *Cellolar synthesis*. Arias acaba de finalizar los estudios de posgrado en composición electroacústica en la Universidad de Música y Arte Dramático de Viena, ciudad en la que estrenó *Astraglossa*, para piano y electrónica, el pasado junio. Esta misma pieza, en su versión para ensemble, fue reestrenada por Vertixe Sonora en septiembre, en el CGAC de Santiago de Compostela. Sus más recientes estrenos han sido *Anima Mundi* en Madrid, por el conjunto Neopercusión, y *Noise-induced hearing loss*, por el Trío Feedback en el festival Sueca Sax.

**Francisco José Domínguez** (Ciudad Real, 1993)
Sigue cursando los estudios de composición en Musikene, y cosechó un importante éxito al ser seleccionado como finalista del Premio Jóvenes Compositores Fundación SGAE que se celebró en el Museo Reina Sofía de Madrid y en el que obtuvo la Mención de Honor Juan Crisóstomo Arriaga. Además, ha podido grabar su obra orquestal *AM* con la Orquesta Sinfónica de Bilbao bajo la dirección de Arturo Tamayo.

**Mikel Chamizo.**
MUSIKAGILEAK.
www.musikagileak.com

# RAMON LAZKANO

## "Parisko kosmopolitismoak eskertzekorik badu, atzerritarraren bereizgarriak onartu eta bereganatzen dituela da"



Ramon Lazkano konpositorea (Donostia, 1968) Musikagileak elkarteko presidente ohia, euskal musika garaikidearen ordezkari ezagunenetarikoa da mundu osoan barrena. Parisen omenaldi handi eta beroa jaso du, hiri honetako Udazken Festibalak irailean, urrian eta azaroan eskaini zizkion hiru kontzertuen bitartez.

**'Ohiberritze' izena daraman ikuskizunarekin hasi zen Pariseko Udazken Festibalak hiru kontzerturen bitartez egin dizun erretratua. Zure 'Ravel' operaren pasarteekin batera, pastoral bat eta euskal dantzak aurkeztu zituzten Théâtre du Châtelen-en. Zergatik nahiago izan zenuen horrela, eta ez zure musikarentzat leku zabalagoa gorde?**

Parisko Festibalak ni gonbidatu ninduen, baina programazioa Festibaleko zuzendariak egituratu zuen. Honek argi zeukan kontzeptualki bete nahi zuen helburua: bere jatorrizko ideiak aditzera eman nahi zuen nola den posible euskal tradizioaren bitartez sorkuntza berria gauzatzea. Testuinguru honetan, eta Ravelen musika euskal erreferentziez blai dagoenez, egokia iruditu zitzaion Zuberoako ildotik Ravelen musikara hurbiltzea eta nire proiektuarekin estekatzea.

**Hainbeste urtez Parisen bizita, paristarra zarela esan daiteke. Baina hiriak egin dizun omenaldi honetan zure euskal erroak protagonista bihurtu nahi izan dituzu. Non eta nola kokatzen duzu zure burua, eta zure musika, Parisko kosmopolitismoaren eta euskaldun izatearen artean?**

Euskaldun izatea akzidentea da. Ez dut nire euskal erroa protagonista bihurtu nahi izan, baina euskaldun izatearen baldintzak nire lana eta lan honengan diren ikuspuntuak elikatzen ditu. Bestalde, nire obra nire kasa eta nire esperientziarekin eraiki nahi izan dut beti, naizena naizelako. Parisko kosmopolitismoak eskertzekorik badu, hain zuzen ere horixe da: atzerritarraren bereizgarriak onartu eta bereganatzen dituela, forma berri bat emanez eta atzeritarraren izatea aberastuz eta moldatuz.

**Parisko Udazken Festibalak egin dizun erretratua Europa mailan duzun izen handiaren berrespena da. Bide luzea egin duzu honaino iristeko. Zure karreraren inguruko zein hausnarketa eragin dizu omenaldi handi honek?**

Ibilbidea obraren eraikuntza bera da. Eguneroko lanari ekin, ohiko buruhausteekin borroka egin eta, bat-batean, ezustean ia, urtetako esfortzuak zerbait gauzatu duela ikusten duzu. Baina hau ez da helmuga, ez gara inora iritsi, etapa bat besterik ez da. Erretratuek bertigoa ematen dute, egindakoari aurre egin behar baitzaio: nahitaez, krisialdiak dira.

**Jean Echenoz-en 'Ravel' nobela da zure lehenengo operaren oinarri literarioa. Bazenuen aurretik opera bat idazteko gogorik, ala eleberria irakurtzearekin batera hasi zen dena?**

Operarekiko gogoeta kontraesankorrak izan ditut beti, baina zoratzen nauen generoa da era berean. Irakurketek operarako gura piztu didate inoiz, eta bidean ezinezko hamaika proiektu gelditu dira. Echenozen liburua, ordea, ebidentzia bat izan zen: Ravelengatik, noski, eta Ravelen gaixotasuna nire kezkekin bat datorrelako, baina batez ere Echenozek azkeneko hamar urte horiek kontatzeko duen moduarengatik.

**Nola izaten ari da 'Ravel' operaren sorkuntza prozesua? Nola begiratzen diozu generoari?**

Sormen prozesu denak bezala, ernagarria eta mingarria izaten ari da aldi berean. Musika idazteak kemen handia eskatzen dit. Are gehiago kasu honetan, proiektuaren dimentsioa eta prestatzeko beharrezkoa den epe luzea tarteko. Ideia lantzen aspaldi hasi nintzen, 2008an, baina gero, arrazoi pertsonalengatik, aldi baterako baztertu behar izan nuen. Proiektua Joséphine Markovits Parisko Udazkeneko Festibaleko zuzendariak berpiztu duela esan nezake. Honezkero urte eta erdi daramat lanean: lehenengo asteak libretoa prestatzeko, eta ondoren oraingoz existitzen diren 40 minutuak konposatzeko. Donostian abenduaren 18an aurkeztuko duguna kontzerturako egokitutako zatiak besterik ez dira, bi kantarirekin, sopranoa eta tenorea; obra amaitutakoan zazpi zati izango dira. Guztiak eszena introspektiboetatik datoz eta segida berezi batean antolatu ditut kontzertu egoeran zentzua har dezaten. Instrumentuei dagokionez, hamabost jole dira, eta bitxitasun bezala aipa nezake biolontxelistak eta kontrabaxistak bina instrumentu erabiltzen dituztela, bata arrunta eta bestea mikrotonalki afinatutakoa.

**Mikel Chamizo.**
MUSIKAGILEAK.
www.lazkano.info

# Musikari
## TOPALEKU, ORDEZKARI ETA BOZGORAILU

**Musikari Euskal Herriko Musikariak – Músicos de Euskal Herria 2013 urte hasieran berpiztu zen, Euskal Herrian musikagintzaren inguruan dabiltzan hainbat profesionalen ekimena eta sustapena medio, onuragarria eta beharrezkoa baiteritzogu talde lanerako eta hausnarketarako horrelako topaleku bat edukitzea.**

Elkartearen asmoak dira eztabaidarako abagune izatea, esperientzien berri emateko topaleku izatea, eta gizartearen aurrean lanbide honen gorabeheren bozgorailu lanak egitea; ogibide gutxietsi bezain ezezaguna baita jendartearentzat.

Elkarteak elkarrizketa bideak abiatu ditu dagoeneko erakundeekin. Nagusiki, baina, gure lanbidearentzat erabakitzaileak diren gaiak ebazten diren foroetan hizketakide bilakatzera bideratu ditu ahaleginak. Elkartearen bokazioa baita gure planteamenduak, arazoak eta proposamenak helaraziko dituen tresna izatea.

Interpretatzaileak eta sortzaileak batzen dituen elkarte honek bazkideen artelanen hedapena ere du jomugan. Gaur egun argia ikusten duten ekoizpenen kopuru handi bat musikariek eurek ekoiztua da eta horietako asko, halaber, zuzeneko musikaren merkatuan topa daitezke inolako management bulego edo antzekoen laguntza zehatz edo berezirik gabe.

Dagoeneko eremu eta estilo ezberdinak jorratzen dituzten 300 lagun baino gehiago bildu dira Elkartearen baitan: kantu lirikoa, popa, rocka, jazza, euskal musika herrikoia, egungo euskarazko kantagintza, musika garaikidea eta beste batzuk... Izaera zabala izanik sortu ginen eta garrantzizkoa deritzogu talde heterogeneoa izaten jarraitzea. Hori dela eta, edonolako estilotan aritzen diren musikariei dei egin nahi diegu proiektu honetan parte har dezaten, jakin baitakigu gaiak elkar partekatu eta lan egiteko aukera ugari ditugula, elkar hobeto ezagutu eta gure lanerako ikuspuntuak zein sormenerako guneak hobetzeko.

### Lan baldintzen problematika

Garai berriek erronka berriak ekarri dituzte, aukera berriak eta baita problematika berriak ere. Gaur egungo arazo nagusia musikariek euren kontzertuak ezin fakturatzea da. Oso gutxi dira autonomo edo enpresa bezala lan egin dezaketen musikariak. Uste dugu kontzientziazio falta izugarria dagoela gai honen inguruan; musikariak 'kontratatzen' dituztenen aldetik eta baita musikarien aldetik ere, ez dakitelako nola jokatu.

Musikari Elkarteak fakturazio zerbitzua eskaintzen die bere bazkideei, beraien lana modu erregularizatuagoan egin dezaten. Bi urte daramatza honetan Elkarteak, eta orain arte 500 faktura inguru kudeatu ditu 200 bat bazkiderentzat. Musikariei lanaren zati bat erraztu ahal izateaz harro gaude, baina, era berean, artista askoren lan baldintza prekarioez jabetzen gara: kontratazio eza, Gizarte Segurantzako altarik ez eta ardura falta kezkagarria.

Egungo lan kontratuek eta baldintza estandarrek ez dituzte inola ere kontuan hartzen musikari, interpretatzaile, egile edota edozein motatako artistaren lan maiztasuna ezta horrelako lan batek beharko lituzkeen eremu fiskal eta laboralak ere. Beste ogibide askoren kasuan egoera berbera errepikatzen dela ere badakigu. Horrelako egoerak topagune ezberdinetan salatzen ahalegintzen gara Elkartetik. Jakin badakigu erronka oso gogorra dela, baina gure esku dagoena egiten ari gara eta horretan jardungo dugu.

Topagune horietako bat, hain justu, jaio berri den Kultura Zuzenean Bizirik plataforma da, Musikari eta sektoreko beste elkarte askoren artean sortua. Honen bitartez, besteak beste, Kulturaren Estatutu Profesionala lantzeko irizpideak martxan jartzeko asmoa dugu.

Badirudi gizarteak oro har eta sektoreko eragile askok ere ez dutela musikari lana seriotzat hartzen. Tamalez, musikariak eta "farandula" munduko ogibideak zaletasun gisa jo izan dituzte urte luzez, eta oraindik orain berdintsu jarraitzen dugun seinale dira arestian aipatutako gabeziak.

Kontzertu batera hurbiltzen den jendeak ulertzen al du oholtza gainean dagoena lanean ari dela? Eta langile bezala bere eskubide eta betebeharrak dituela? Ez al dituzte musikariek beste edozein langilek dituen babes eta baldintza berberak behar? Hausnarketa sakon baten beharrean gaude.

**Myriam Miranda.**
MUSIKARI.
www.musikari.com

# PROPIEDAD INTELECTUAL

# UN NUEVO ESCENARIO



## Rescatamos para este anuario la ponencia sobre gestión de la propiedad intelectual que Ainara LeGardon ofreció en la 50ª Feria de Durango (2015), dentro de las actividades organizadas por Musika Bulegoa en el campo de la formación.

En el ámbito de la propiedad intelectual se están viviendo momentos de cambio. Por un lado, desde la Comisión Europea se trabaja para revisar y actualizar la normativa existente, tratando de armonizar las diferentes leyes estatales y apostando por el Mercado Único Europeo. Por otro lado, en el estado español aún queda un largo camino que habrá de desembocar en una próxima y necesaria reforma de la Ley de Propiedad Intelectual (una más, tras la insuficiente revisión que supuso la Ley 21/2014), que implique la definitiva transposición de la Directiva 2014/26/UE sobre gestión colectiva.

Si bien la última reforma de la LPI nació ya obsoleta al no transponer algunas normas contenidas en la directiva europea, sí que ha supuesto ciertos cambios en el rumbo de la gestión de derechos. Ese hecho, sumado al surgimiento de una nueva entidad en el País Vasco, está provocando que se tambaleen los cimientos del hasta ahora casi invulnerable monopolio de las sociedades gestoras*.

### ¿Qué cuestiones son las que más preocupan a los autores musicales?

Cuestiones simples, llanas. Asuntos que carecen de lógica para los autores y usuarios, y que se podrían resumir en muy pocos puntos:

**El contrato de gestión**

Contiene unas condiciones innegociables, previa y unilateralmente establecidas por la entidad. En el caso de SGAE es, además, de carácter exclusivo. ¿Qué implica esto?

- El autor se ve obligado a delegar la gestión de la totalidad de su repertorio a la entidad. No puede optar por dejar fuera de SGAE la gestión de ciertas obras.
- En el caso de las autoproducciones, los autores están obligados a pagarse a sí mismos los derechos de autor cuando editan un disco o cuando ejercen de organizadores de sus propios conciertos. Ese pago se ha de efectuar por adelantado y a través de SGAE. Es decir, SGAE cobra a los autores para luego pagar a esos mismos autores, previa deducción de su porcentaje por la recaudación y administración de esa cantidad.
- Los socios tampoco pueden controlar, por ejemplo, en qué espacios pueden tocar su repertorio sin que SGAE esté legitimada para solicitar el pago de derechos en su nombre: pequeñas librerías, locales ocupados, y otros espacios alternativos fuera del circuito oficial y que no pagan tarifas a SGAE.

**Tarifas y pendiente de reparto**

- ¿Por qué SGAE es capaz de gestionar los derechos de sus socios, pero también los de otros autores que no les han encomendado su gestión? Por un lado, porque existen derechos de gestión colectiva obligatoria, y por otro, porque algunos derechos que en principio son de gestión colectiva voluntaria son recaudados también por SGAE a través de las tarifas generales. Estas tarifas se cobran a los usuarios no por el uso efectivo de un repertorio concreto, sino simplemente por la disponibilidad de uso. Esto implica que existan millones de euros pendientes de identificar y/o repartir en las arcas de SGAE, simplemente porque han sido cobrados en nombre de autores que no los podrán reclamar, puesto que muchos ni siquiera son socios (ni tienen intención de serlo).
- Las tarifas han sido fijadas de forma unilateral por SGAE, en muchos casos (como ha denunciado repetidamente la Comisión Nacional de los Mercados y la Competencia) de forma abusiva, amparándose en su posición de monopolio.

### Cambio en el modelo

Por suerte, la reforma de la LPI trata algunos de estos aspectos, como el contrato de gestión, el control sobre las tarifas (hace tan sólo unos días se aprobó la orden ministerial por la que se aprueba la metodología para la determinación de las tarifas generales) y el destino del reparto, la transparencia, etc.

EKKI surge, por lo que hemos podido comprobar hasta ahora, con la intención de permitir que el titular de derechos pueda elegir qué tipo de contrato suscribe con ella, flexibilizando la gestión para que sea el autor el que pueda tomar todas las decisiones sobre su obra. Otro ejemplo, en marcha desde el año 99, es el de DAMA. Esta entidad permite el contrato por obra (no exclusividad), y, gracias a la aplicación de unas tarifas que atienden al uso efectivo, tiene un 'pendiente de identificar' de cero euros.

Cualquier entidad gestora que sea capaz de incidir en estas cuestiones, estará corrigiendo los graves fallos del modelo de gestión actual, y mejorando las condiciones de los creadores.

### Formación y ayuda para los creadores

Un asunto fundamental para que los autores puedan tomar decisiones conscientes y responsables respecto a la gestión de su obra, es dotarlos de la formación necesaria en materia de propiedad intelectual. Que sepan qué derechos genera su obra y de cuáles son titulares, que diferencien entre aquellos que pueden ceder y los que no, que entiendan qué es y qué no es una entidad de gestión colectiva, que comprendan lo que son y no son las licencias libres y su compatibilidad o no con el modelo de gestión elegido por ellos mismos, y, como objetivo final, que ni un solo autor firme ningún contrato sin entender plenamente a qué se está comprometiendo mediante ese acuerdo.

**Ainara LeGardon.**
www.ainaralegardon.com

* Todas las sociedades de gestión de derechos de propiedad intelectual en el estado español ostentan un monopolio en su ámbito de actuación, excepto en el caso de los derechos de los creadores audiovisuales, quienes pueden elegir entre SGAE o DAMA. DAMA supuso, hasta el nacimiento de EKKI, el único caso de ruptura de uno de esos monopolios, pero tan sólo en un sector concreto (directores y guionistas, no compositores).

# Musika Industriaren Elkartea

## COBERTURA A EMPRESAS, CONTRIBUCIÓN A LA INDUSTRIA MUSICAL VASCA

**MIE Musika Industriaren Elkartea es un proyecto asociativo de la Industria Musical Vasca que tiene como objetivo aunar en su seno a las empresas que trabajan en el sector en cualquiera de sus ámbitos.**

La industria cultural atraviesa una situación complicada, y los nuevos modelos de actividad empresarial –más abiertos y multidisciplinares– necesitan de una asociación más fuerte, más amplia, que ofrezca cobertura a todas las empresas de la industria musical y capaz de trabajar de forma efectiva por los intereses de sus empresas asociadas y por lo tanto de la música vasca. Con esa misión ha nacido Musika Industriaren Elkartea (MIE), y precisamente por ello se ha dotado de una organización con tres áreas de actividad: Producción Discográfica (Discográficas, Estudios de grabación, Editoriales), Producción Directo (Promotores, Managers, Agentes) y Producción Técnica (Sonido, Iluminación, Backline, etc). Este organigrama permite a la asociación trabajar en defensa de los intereses globales de la industria musical vasca pero defender también los intereses de cada sector.

Actualmente la asociación, compuesta por 37 socios, está inmersa en diferentes temas relacionados con la actividad de nuestras empresas: Interlocución, formación, estudios, comunicación, estrategias, etc.



MUSIKA INDUSTRIAREN ELKARTEA

### VENTAJAS PARA ASOCIADOS

Además de ser un foro donde los asociados plantean sus inquietudes, aportaciones, experiencias y conocimientos, pertenecer a MIE aporta un valor añadido a sus empresas asociadas. Para ello, les hacemos llegar información actualizada del sector: subvenciones y ayudas, concursos públicos, programas privados etc., ofrecemos descuentos en las acreditaciones para asistir a ferias así como una bolsa de viaje para asistir a las mismas y tenemos cursos de formación gratuitos.

La interlocución con las administraciones es esencial para trasladar las inquietudes y proyectos del sector y tener conocimiento de cómo se plantea desde las instituciones el desarrollo de sus programas e intentar intensificar la colaboración público-privada en beneficio de las industrias culturales y creativas.

En este sentido, mantenemos vías de interlocución con las administraciones autonómicas, provinciales, locales, y diferentes entes relacionados con nuestra actividad. Además, participamos en el proyecto EHMBE Euskal Herriko Musika Bulego Elkartea como socio fundador.

Como organización independiente que somos, también participamos en todos aquellos foros en defensa de los intereses de la industria musical y donde se produzca un debate en el que podamos aportar y recibir experiencias relacionadas con las industrias creativas y culturales.

Nuestro principal objetivo es seguir creciendo como asociación, cubrir las necesidades de las empresas miembro y prestar los mejores servicios a favor del sector musical vasco. ¡Te invitamos a conocernos!

### OBJETIVOS DE MIE

- Representar a todos sus asociados y trabajar en pro de sus intereses profesionales y laborales, sociales y culturales.
- Crear un foro de trabajo para intercambiar ideas y experiencias en beneficio del profesional de la industria musical.
- Mantener el contacto con otras organizaciones afines de cualquier ámbito territorial con el fin de prestarse mutua colaboración e intercambiar experiencias en materia profesional que redunden en el beneficio de la asociación y de sus asociados.
- Llegar a acuerdos con diferentes organizaciones, instituciones públicas, empresas o personas físicas y jurídicas con respecto a temas que interesen y/o afecten a los miembros de la Asociación.
- Fomentar la existencia de programas institucionales específicos que contribuyan al asentamiento y expansión de nuestra música y fortalezcan la industria vinculada a la música.

**Ruth Manzano.** MIE.
www.mieelkartea.com

# MUSIKAREN EGITURAK, MUSIKAREN AZPIAK



**Nola pentsa dezakegu sustraietan azaleko ezagutza baldin badugu? Galdera da musikaren beraren norainoko ezagutza ote duten azpiegiturek (kudeatzaile, sustatzaile, areto, manager, marketing arduradun, musikaren teknokrata, aditu, diskoetxe, talde, autoeraketako mugimendu, musikari eta abar).**

Musikariak bere bidea egin nahi du, ahalik eta luzeena, eta luzaroan luzaro. Azpiegiturak antolaketa sakona behar du. Ahotan dabilen zorioneko hitza diagnosia da, baina datu eskasak eta sasi-hutsalak ditugu Euskal Herriko musika sektorearen egituraketaren edo ehunduraren osasunari buruz.

Non daude musika sarearen benetako egoeraren berri emango diguten ikerketa soziologikoak? Egituraketa horri soilik industriaren begiradak eman al diezaioke ikuspegi orokorra, ala bada bizitzarik industria arruntaren saretik kanpo? Bizitza kulturala edo musikala areagotzeko, industriatik gidatutako enpresa multzoek erraztuko al dute bidea? Eurek bakarrik sektore publikoarekin batera?

Industria kulturalaren joera utilitarista zama handiegia da sormen intelektual askeak mendekotasunik eta morrontzarik gabe bere lana egin dezan. Abestiak, musikariak, taldeak eta zuzenekoak merkantzia gisa tratatzea onuragarri zaio sormena salerosketa huts bihurtzen duen horri. Kultura egiten duen egilearen iritzia jakitea, ordea, interesgarria ez ezik derrigorrezkoa ere bada.

Musikarientzako hezkuntza eta hauen aldetiko irakaskuntza bultzatu behar ditugu, pentsamendu artistiko kritikoa nahiz autonomoa askatuko dutenak. Gehiegi hedatu da esatea Euskal Herriko kultura-industria sendoak egingo duela herrialdea gero eta indartsuago alor guztietan, politikoa barne. Baina industriaren sendotasunak industria horren jabeen sendotasuna inplikatzen du, inola ere ez herrialde horren kultura mailaren indarra eta corpusa. Industria bakoitzak bere industriari begiratzen baitio berekoikeriaz, poltsikoari. Industria gehienetan poltsikoa baita, eta gutxitan kultura. Agian Durangoko Azokan hainbat erosle konpultsibok erositako liburuak hautsak hartuko ditu apalategi txukunetan. Bere kultura aintzat hartzen duen herria, herri aberatsa izango da beti kultura terminotan. Nola, ordea? Proiekturik gabe ez dago xederik. Musika heziketarako ikuspegi berri batek lagundu dezake herria eraikitzen; sormen handiagoarekin eta euskal kontsumo (?) kultural gehiagorekin. Zer egin beharko genuke talentua zabaltzeko eta esportatzeko? Kultura sortzen duten langileak sustatu, gertutasunetik kudeatuta.

Euskal Herriko kulturaren azpiak ezagutu behar ditugu bere gainak ongi egiteko. Azpiak eginez, gainak antolatu.

**Ritxi Aizpuru.** BAGA-BIGA MUSIKA IDEIAK.
www.baga-biga.eus

# Musika Bulego Sariak 2016

## “MBS EKIMENEAN EZ DAGO HOBERIK ETA OKERRAGORIK”

Euskal Herriko Musika Bulego Elkarteak aurreneko Musika Bulego Sariak banatu zituen iragan azaroan. Lau egilek eta proiektu batek ordainsari eta oroigarri bana jaso zuten errekonozimendu gisa. Myriam Miranda eta Jabiertxo Andiarena EHMBEko kideek hartu dute berengain MBS proiektua abiarazteko ardura nagusia.

**Zein sariketa mota antolatu duzue?**

**Myriam Miranda:** Sariketa bateratzaile eta transbertsala antolatu dugu. Kalitatea gailendu dugu, kategoriak baztertuz. Bide batez, Musika Bulegoa musika sorkuntzarekin, etengabeko prestakuntzarekin eta sustapenarekin erlazionatzea ere bazen helburuetako bat.

**Zer du ekimen honek ezberdina dagoeneko existitzen ziren beste lehiaketa batzuekiko?**

**Jabiertxo Andiarena:** Planteamendu horizontala eta berritzailea du: musika klasikoa aurkez daiteke, edota rock altenatiboena, sustrai-musika..., eta grabaketa bat, partitura bat edota bira oso bat. Bestalde, sariketa ororen izaera lehiakor deseroso eta gozakaitz hori minimizatu dugu. MBS ekimenean ez dago lehenengo eta bigarren saririk, ez dago hoberik eta okerragorik. Besterik gabe, epaimahaiak errekonozitu nahi dituen obra eta musika lanak saritzen ditu.

**Zergatik dira beharrezkoak Musika Bulegoa Sariak?**

**J.A.:** Gure herriko musika jarduera zabala eta kalitate handikoa den arren, ez da behar adina ezagutarazten, eta ondorioz, jendartearen zati handi batek ez du hala hautematen, sentsibilizazio gabezia izugarria da. 2015ean Travelling Brothers taldea Europako Blues Banda Onena izendatu zuten, baina zenbaterainoko oihartzuna edo eragina izan zuen horrek euskal gizartean? Eta Goseren ///// diskoak Los Angeles Academy Music Awards-en elektronika disko onenaren saria jasotzeak? Edota Musikagileak elkartea ISCM-ko (International Society for Contemporary Music) partaide gisa onartua izateak? Ikusgarriagoa bilakatuko duten tresnak behar ditu euskal musikagintzak, hedabideetan eta hiritarren begietan leku bat irabazteko; gure profesionalen lana, ibilbidea, eskarmentua eta meritua kontuan hartuak izan daitezen. Tankera honetako sariketa bat egokia izan daiteke zentzu horretan, eta bultzadatxoa ere eman diezaioke sektoreari, eragileen arteko harremanak bideratzeko edota indartzeko balio duelako.

**Eragile horietako askok, ordea, ez dute ez posible ezta zilegi ere ikusten artisten sormena kontabilizatu edo epaitzea...**

**M.M.:** Bai. Musika Bulegoko Zuzendaritzako batzordekideon barne hausnarketetan oso gogoan eduki dugu gai hau, eta baita sektoreari nahiz gizarteari zuzendutako komunikazioetan ere. Adibidez, ez dugu inoiz “hobe” edo “lehen” bezalako hitzik erabili prozesu honetan. “Lehia” edo “sariketa” hitzak, ordea, ezin izan ditugu saihestu, baina ohikoak ez diren irizpide oso interesgarriak baliatu ditu epaimahaiak bere erabakietarako.

**J.A.:** Egia esateko, urte luzez eta foro ezberdinetan, euskal musika eszenako eragile askok eztabaidatu dugu euskal musikagintzaren kalitatea errekonozituko zuen balizko sariketa baten beharraz eta komenigarritasunaz. 2014an Musika Bulegoa jaio zen Euskal Herriko musika sektoreko profesional elkarkidetu gehienak besarkatuz, eta testuinguru berri honek ahalbidetu du urtetako eztabaida hark forma hartzea eta 2016an Musika Bulegoa Sariak ekimenaren lehen deialdia zabaltzea. Iritzi eta gogoeta ezberdin guztiak hartu ditugu kontuan proiektuaren diseinuan eta, hain justu, horrek eragin du MBS hain ezaugarri bereziko ekimena izatea. Dena dela, proiektuaren oinarriak eta formak eztabaidagai dira oraindik, eta aurrerantzean ere izango dira, eta ondorioak iritsi ahala eboluzionatuko du sariketak berak ere. Hazi eta euskal musika eszenari dagokionez erreferentziazko sariketa bilakatzeko borondate osoz jaio baita MBS. Hortaz, etengabeko autoebaluaketa eta autokritika ezinbestekoak izango dira egokitzat jotzen ditugun aldaketak egin eta erronka gisa ezarritako helburuak betetzeko, beti ere sorrerako baloreei eutsita eta sektorearen erantzuna positiboa bada.

**Nolakoa izan da prozedura?**

**M.M.:** Musika Bulegoko edozein bazkidek edozein motatako musika lana aurkezteko aukera izan du, beti ere 2015eko uztaila eta 2016ko abuztua bitarte Euskal Herrian argitaratutakoa bazen. Nork bere burua aurkezteko aukera ere bazegoen. Guztira 68 proposamen iritsi ziren eta, baldintzak betetzen zituztela ziurtatuta, epaimahaiaren esku utzi genituen. Nork bere gustukoenak aukeratu zituen lehenik eta, aurreneko galbahe horren ostean, iritziak bateratu eta proposamenen gainean lan egin zuten fase ezberdinetan, harik eta saritutako bost proiektuetako lau aukeratu zituzten arte. Bosgarrena, formakuntza, sentsibilizazio eta hedapen alorrean egindako lanagatiko saria, EHMBEk ebatzi zuen zuzenean.

**Zertan datzate sariek?**

**M.M.:** 3.000 euroko bost ordainsari dira, Fernando Mikelarenaren eskultura banarekin. Artelan hau sariketaren irudi bilakatu da jada.

**Zein funtzio aitortu zenioten sari banaketa ekitaldiari?**

**J.A.:** Alde batetik, sektorearentzako topaleku/gune izan da. Eta, bestetik, musika jardueraren, sariketaren beraren eta Musika Bulegoaren erakusleiho izan zedin nahi genuen. Alde estetikoaren eta kontzeptualaren arteko oreka bilatu genuen, askoren partehartze erosoa ahalbidetzeko. Eta, jakina, musika eta, bereziki, saritutako musika izan ziren ardatz; festa giroan euskal musikagintzaren aberastasuna eta kalitatea ospatu eta ikusarazi genituen.

## EPAIMAHAIA




EHMBEko Zuzendaritza Batzordeak izendatutako zortzi kide arduratu ziren ebazpenaz. EHMBEko ordezkarien hitzetan, "guztiek dute ibilbide oparoa eta eskarmentu handia, ospe ona eta kideen errespetua sektorearen baitan". Gainera, jatorri ezberdinekoak izanik, ikuspegi anitzeko epaimahaia osatu dute:

- **Iñigo Argomaniz** Get In sustapen enpresako zuzendaria.
- **Jon Bagües** Eresbileko zuzendaria.
- **Joseba Cabezas** musika kritikaria.
- **Aintzane Camara** UPV-EHUko irakaslea.
- **Mikel F. Krutzaga** soinu teknikaria.
- **Ainara LeGardon** musikari eta kultur eragilea.
- **Yahvé M. De la Cavada** musika kritikari eta kazetaria.
- **Edurne Ormazabal** EiTB-ko arlo komertzialeko zuzendaria.

Ebazpenerako irizpideak

Baloreak: Kalitatea, lana, esfortzua, meritua, ikusgarritasuna, indarra, esperimentazioa, originaltasuna, ausardia, sotiltasuna, alde estetiko eta estilistikoa.

Prozedurak: Ibilbidea, ikerketa, analisia, metodologia, konposaketa, trebetasuna, teknika, interpretazioa, grabaketa.

## SARIDUNAK



**JUANJO MENA. Berlingo Orkestra Sinfonikoaren kontzertuaren zuzendaritza.**

Fitxa teknikoa: Orkestra zuzendaritza. Errepertorioa: *Falla / Debussy / Ginastera*. 2016ko maiatzak 26, 27 eta 28 Berlingo Filarmonikaren Aretoa. Raquel Lojendio sopranoaren eta Marie-Pierre Langlamet arpa jotzailearen parte hartzearekin.

Epaimahaiaren oharrak: "Juanjo Mena euskal zuzendariaren batutak gidatutako Berlingo Orkestra Filarmonikoaren (Berliner Philharmoniker) kontzertua arrakasta borobila izan zen. Publikoak ez ezik kritika espezialduak ere goraipatu zuen eta, hala, euskal musikaren urteko une gogoangarrienetako bat izan zen".



**ANGEL UNZU. 'Dúos' diskoa.**

Fitxa teknikoa:

Musikariak autoekoitzitako lan diskografiko berria.
Pottoko Studios, Mecca Recording eta Estudio Quimera estudioetan grabatua.
2015ean argitaratua.

Epaimahaiaren oharrak:

"Musika elkarrizketa zoragarriak Euskal Herriko jazz balore aintzatetsienetako baten eskutik. Musiko bikainek inguratutako proposamena da, publiko orori zuzendua".



**RURAL ZOMBIES. 'Bat' diskoa.**

Fitxa teknikoa:

Warner Music-ek 2015eko azaroan argitaratutako lan diskografikoa.
Eñaut Gaztañagak Gaztain Estudios-en grabatua, nahastua eta ekoiztua.
Arte grafikoa eta argazkiak: Josu Torrealday.

Epaimahaiaren oharrak:

"Bere proposamenean freskotasuna eta heldutasuna uztartzen dituen debut harrigarria. Banda sendo batek lagundutako ahots indartsu eta limurtzailea".



**AMORANTE. 'Amorante' diskoa.**

Fitxa teknikoa:

2016ko otsailean autoekoitzia. Musika: Iban Urizar Ondarza. Letrak: Harkaitz Cano, Bixenta Mogel, Iban Urizar. Grabazioa eta ekoizpena: Xabier Erkizia eta Iban Urizar
Arte grafikoa: Alaitz Alberdi, Joseba Agirrezabalaga, Rafa Rodrigo eta Josune Galartza.

Epaimahaiaren oharrak:

"Irekitasunaren aldeko proiektu original eta ausarta da, zeinetan musika herrikoi eta tradizionalak inprobisazioari eta esperimentazioari zabaldu dien atea, nola diskoaren produkzioan (aipamen berezia Xabier Erkiziari) hala konposaketan nahiz eszenaratzean".



**AUDIOLAB KULTUR ELKARTEA**

EHMBEk Audiolab Kultur Elkarteari aitortu dio sari paraleloa soinu ikerketaren alorrean aurrera daramaten etengabeko lanarengatik. Izan ere, hainbat eta hainbat dira Audiolabek abiatutako proiektuak: ERTZ Bertze Musiken jaialdia, Artelekuko SoinuMapa soinu laborategia, *Series Negras* nahiz *Noise & Capitalism* argitalpenak, Hots Radio ekimen hedatzailea, hainbat erakusketaren antolaketa (Tabakalera Suena eta Entzungor, besteak beste), eta UnCommon Sounds, Rona Maubere nahiz Open Sound moduko ikerketa proiektuak.

# Calidad y criterio

## ACTIVIDADES DE FORMACIÓN Y SENSIBILIZACIÓN EN EL SECTOR MUSICAL PROFESIONAL

**El fortalecimiento de la formación de los profesionales del sector y la sensibilización del público son dos de los ejes fundamentales de acción de EHMBE – Euskal Herriko Musika Bulego Elkartea. Sin embargo, para reforzar las herramientas ya existentes de seguimiento, análisis y apoyo, ha sido necesario actualizar la información de la que se dispone y desarrollar un material útil que sirva de base para la continuación del mismo.**

Como complemento a otros estudios previos, el equipo de trabajo dirigido por Ixiar Uria ha elaborado un mapa de actividades de formación profesional permanente, incluyendo las de sensibilización y formación de públicos. Se ha acotado el área de acción de manera que, a partir de este conocimiento, Musika Bulegoa pueda incidir en el futuro, estimulando y promoviendo proyectos específicos.

La primera y principal categorización de todas estas iniciativas responde a tres niveles de destinatarios. De este modo, se distinguen las actividades de formación permanente para músicos; las dirigidas a otros agentes del sector profesional tales como managers, promotores, productores, programadores o técnicos; y, en tercer lugar, las ideadas para el público, tanto de carácter general como específico.

Todos los actores que componen la industria musical parecen demandar formación como garantía de calidad, mayores niveles de exigencia para con los eventos musicales, que los profesionales sean cada vez más competentes y que el público esté más formado.

### Formación de músicos

El estudio de EHMBE engloba bajo el denominador común de músicos a los artistas principales, arreglistas, compositores, directores artísticos y músicos de acompañamiento.

A las nociones musicales que los alumnos reciben a través de la enseñanza general obligatoria, se ha sumado, desde principios de los noventa, la oferta de las escuelas modernas de música que pretenden cubrir las inquietudes, principalmente interpretativas, de la ciudadanía aficionada de cualquier edad. Estos centros han acercado la música a la población, especialmente a los habitantes de pequeñas localidades; sin embargo, aquellos que optan por ser músicos profesionales completan su formación en universidades y conservatorios superiores. Hoy día, contamos, además, con la Escuela Superior de Música, Musikene, que otorga al grado superior de conservatorio el rango de estudios universitarios a todos los niveles.

No obstante, para progresar, innovar y adaptarse a los nuevos tiempos, la formación permanente es imprescindible. Los músicos deben dar continuidad a su formación a lo largo de su carrera profesional, no sólo con el ánimo de mejorar sus dotes creativas e interpretativas, sino para acceder a los nuevos modos de producción, difusión y puesta en práctica de proyectos musicales, ámbitos habitualmente descuidados por los propios músicos. Por otro lado, las labores relacionadas con negociar en condiciones de equidad su prestación de servicios, identificar alternativas de financiación o acceder a conocimientos sobre Derechos de Autor han sido tradicionalmente delegadas en otros agentes, pero en algunos casos están volviendo a recaer sobre los artistas.





Entre las actividades de formación permanente para músicos identificadas por el estudio de EHMBE figuran tales como conciertos didácticos, cursos y/o talleres especializados, charlas entre músicos, jam sessions, jornadas de puertas abiertas, master class, y mesas redondas y conciertos. Las principales entidades promotoras son Bilbao Musika, Musikagela, Musikari, Musikagileak, Maker Faire Bilbao, Atxerri, Aitzina Folk, Musikene, Soinuenea, Eresbil, Escuela de Música Moderna Zabalzade, Festival Guitaralde, Anglet Jazz Festival, Sud Musique School-Tam Ibanez, SGAE, Jazzon!, y la sala Astra.

## Formación de otros profesionales del sector

El entramado de profesiones ligadas al sector musical es amplio y variado, pero se podría resumir en seis grupos: representantes (managers, bookers, agencias de contratación), organizadores de conciertos (promotores, festivales, clubs, entidades públicas), producción de espectáculos (sonido, luz, escenografía, logística sala), producción fonográfica (técnicos de grabación, asistentes, músicos de sesión, directores artísticos), instrumentos (luthiers, tiendas de música, sponsors de instrumentos o material) y locales de ensayo.

Según los datos recabados por el estudio dirigido por Uria, además de algunos de los agentes ya citados en el anterior apartado, entidades y particulares como SGAE, Musika Industriaren Elkartea, Letamina, Campo Creativo 0, Gerediaga Elkartea, Ainara LeGardon, BIME y Develop 5 han llevado a cabo iniciativas de manera proactiva. Talleres formativos o cursos especializados en materias tales como mastering, mezcla, grabación o directo son la base para un sector más cualificado, así como seminarios, encuentros profesionales o charlas y conferencias en las que intercambiar visiones y experiencias.

## Formación de aficionados y público

Al margen de su aportación al negocio como consumidor, el papel del público como crítico, seguidor, investigador, analizador y evaluador de la música es clave. Más allá de ser meros receptores de proyectos musicales, los espectadores también pueden recibir formación para el desarrollo de su criterio.

En ese sentido, parece unánime la idea de que la sensibilización del público debería empezar desde una edad temprana. Por eso adquieren especial relevancia las actividades dirigidas al público infantil, joven y/o familias, aunque también existen iniciativas para bebés, y cómo no, para adultos.

Conciertos didácticos y temáticos, conferencias y charlas, cuentacuentos con instrumentos y/o música, encuentros con músicos y/o instrumentistas, tertulias, kantujiras, ópera para niños, talleres de estimulación con música o canciones, teatro musical e iniciativas como Izarrak Plazara o Musika en Familia son algunos de los casos que completan el amplísimo abanico recogido por el estudio de EHMBE.

Escuelas de música, festivales, academias, centros culturales, asociaciones (no necesariamente vinculadas al sector: euskaltegis, asociaciones de personas mayores), museos, librerías, promotoras y discográficas parecen compartir el afán por formar un público más cualificado que eleve el nivel de exigencia respecto a la actividad del sector musical vasco.

## ALGUNAS OBSERVACIONES

**Testimonios emitidos por interlocutores a lo largo del presente estudio han dado pie a diversas reflexiones:**

- **Hace varias décadas, al inicio de la llamada Industria Musical, diferentes agentes se formaron de manera autodidacta**. No sólo músicos, autores y cantantes, sino, productores, managers, representantes, técnicos, etc. denuncian ahora que, por falta de titulación, son injustamente marginados en la concesión de habilitaciones para dar clases en escuelas municipales.

- **Desde Musikene denuncian que los recortes de presupuesto dejaron a la escuela con el esqueleto de las clases obligatorias,** perdiendo la oportunidad de organizar actividades relacionadas con la industria musical, fundamentales en la formación global de un músico. También desde Musikene, algunos profesores parecen constatar en los alumnos que se inscriben en ella una preparación insuficiente para afrontar un nivel tan exigente.

- **Estudiantes de ciertos instrumentos no incluidos en el curriculum de las enseñanzas profesionales de la música denuncian discriminación y desventaja.** De esa misma carencia docente se quejan muchos de los que llevan a cabo estudios de luthier y aquellos que quieren pasar a la Carrera Superior de Jazz.

- **La crisis de la industria discográfica desde la década de los 90 ha revalorizado la presentación en vivo como uno de los productos de mayor importancia para los artistas.** Sin embargo, parece existir un gran vacío didáctico a este nivel. El directo representa, por tanto, un gran reto formativo.



musika
bulegoa
euskal herriko musika
bulego elkartea